

AP-1 eta AP-8 arteko lotuneetan itxierak tunelen mantentze lanak direla-eta


Maiatzaren 19an 23:00etatik 02:00etara Eibar eta Bilboko norabidean lotunea guztiz itxita; eta 04:00etatik 05:00etara Behobiako norabidean lotunea guztiz itxita

Bidegik jakinarazten du, bihar, maiatzaren 19an, asteartean, 23:00etatik aurrera AP-1 eta AP-8 arteko lotuneetan hainbat itxiera egingo direla Arrizabalaga, Barrundia eta Aginagako tuneletan mantentze-lanak direla-eta.

Lehen itxiera 23:00etatik 02:00etara izango da. Tarte horretan, Arrizabalaga eta Barrundiako tunelen mantentze-lanak direla-eta, Eibar eta Bilboko norabidean AP-8rako lotunea guztiz itxiko da. Lotura hau itxita dagoen bitartean, Eibarrera joan nahi duten zein AP-8a Bilboko norabidean hartu nahi duten erabiltzaileek AP-8a Behobiako norabidean hartu beharko dute Elgoibarko irteeran ateratzeko, eta ordainlekuaren ondoren dagoen biribilgunean zentzuz aldatuta berriro AP-8ra sartzeko Bilboko norabidean.



Eta bigarren itxiera 04:00etatik 05:00etara egingo da. Kasu honetan, Aginagako tunelaren mantentze-lanak direla-eta, AP-1aren eta AP-8aren arteko lotunea Behobiako norabidean guztiz itxiko da. Lotura hau itxita dagoen bitartean, AP-8a Behobiako norabidean hartu nahi duten erabiltzaileek 145 irteeratik atera beharko dute N-634 Eibarko norabidean, eta behin ordainlekua pasata, biribilgunean buelta eman eta berriro AP-8an sartu Donostiako norabidean.



Cierres en los enlaces entre la AP-1 y la AP-8 por mantenimiento de túneles

El 19 de mayo, entre las 23:00 y las 02:00 horas enlace sentido Eibar y Bilbao cerrado; y de 04:00 a 05:00 horas, enlace sentido Behobia cerrado

Bidegi informa que el martes 19 de mayo, a partir de las 23:00 horas, se producirán diferentes cierres en los enlaces entre la AP-1 y la AP-8 debido a trabajos de mantenimiento en los túneles de Arrizabalaga, Barrundia y Aginaga.

El primer cierre se producirá entre las 23:00 y las 02:00 horas. Durante ese tiempo, debido a labores de mantenimiento en los túneles de Arrizabalaga y Barrundia, el enlace con la AP-8 sentido Eibar y Bilbao quedará cerrado completamente. Durante el tiempo que dure el cierre del enlace, las y los usuarios que deseen dirigirse a Eibar o tomar la AP-8 dirección Bilbao, deberán dirigirse por el enlace con la AP-8 sentido Behobia hasta Elgoibar, para cambiar de sentido en la rotonda tras la estación de cobro e incorporarse de nuevo a la AP-8 sentido Bilbao.



El segundo cierre se producirá entre las 04:00 y las 05:00 horas. En este caso, debido a trabajos de mantenimiento en el túnel de Aginaga, el enlace de la AP-1 con la AP-8 sentido Behobia se cerrará completamente. Durante el cierre, las y los usuarios que deseen continuar por la AP-8 en dirección a Behobia, deberán salir por la salida 145 en dirección a la N-634 Eibar, y tras pasar el peaje, dar la vuelta en la rotonda e incorporarse de nuevo a la AP-8 sentido Donostia / San Sebastián.

